

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Hasierako onespina ematea zerga ordenantzak 2025rako aldatzeari

Udalbatzak, 2024ko urriaren 9an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen behin behineko onespina ematea 2025ean indarrean egongo diren zerga ordenantzei:

Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza.

Zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak eta prezio publikoak arautzen dituen zerga ordenantza.

Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, argitara ematen da hasierako onespina jaso duen zerga ordenantzaren testu osoa, eta udal bulegoetan egongo da ikusgai, interesdunek espedientea aztertu ahal izan dezaten eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten hogeita hamar eguneko epean, aipatutako iragarkia argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Bestalde, jakinarazten da ezen, erabaki horren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada jendaurrean dagoen bitartean, erabakia behin betiko onetsizat joko dela.

Azilu, 2024ko urriaren 10a

Alkatea

IRATXE DEL BARCO MURUA